

 AMOREBIETA- ETXANOKO UDALA P4800300H	IL0095	Obra handietarako lizentzia
---	---------------	------------------------------------

ZER DA? ZERTARAKO DA?

Adierazpen izaera duen administrazio baimena, instalazioak eraikitzeko, altxatzeko eta ezartzeko obrak egiteko gaitzen duena, eta baita eraikinaren edo instalazioaren estrukturan edo egituraketa arkitektonikoan eragina duten eraikinen edo instalazioen handitze, berrikuntza eta kontserbaziorako ere.

NORK ESKA DEZAKE?

Pertsona fisiko edo juridikoak edo bere lege ordezkariak.

AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA

- [E033 Obra-lizentzia eskaria](#)
- Langile tekniko eskumendunak sinatutako proiektua, behar bezala ikus-onetsia.
- Kasu bakoitzean aplikagarri izan daitekeen legediak eskatutako baimen konkurrenteak.

NON ESKATZEN DA?

Aurrez aurre:

- [Udaletxea](#)
Udaletxea
Herriko plaza z/g, 48340 AMOREBIETA-ETXANO
Ordutegia: 7:30 - 15:00

Posta arrunta:

- Posta ziurtatua
Herriko plaza z/g, 48340 AMOREBIETA-ETXANO

ZENBAT KOSTATZEN DA?

001 - Eraikuntza, Instalazio eta Obren gaineko zerga. Kraga tasa.	
TARIFA OROKORRA	5 %

002 - Hobariak. Udalaren interes berezizat edo onuragarritzat jotako obrak.	
Ekainaren 30eko Lurzoru eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legea garatzeko premiazko neurrien ekainaren 3ko 15/2008 Dekretuaren 9. art.an zehaztutako parametroak betetzen dituzten baserrietan egiten diren lanak, betiere hauen egitura, fatxada eta/edo teilatuan mantentze-lanak egiteko, konpontzeko edo ordezkatzeko bada.	60 %
Gizarte-inguruabar, kultur inguruabar edo inguruabar historiko-artistiko bereziak direla eta edo enplegua edo txandakatzeko alojamendu iraunkorra sustatu beharra dela eta interes berezikotzat edo udalerrien onurarakotzat jotzen diren eraikuntza, instalazio edo obretarako.	75 %
Interes berezikotzat edo udal onuragarritzat jotzen bada edozein eraikuntza, instalazio edo obra, eraikinetako kanpoko fatxadak osorik birgaitzea dakartenean eta herri bidera ematen dutenean.	90 %
Kultur Ondarearen Legeak edo arau subsidiarioek babesturiko eraikinetako elementu bereziak artatzeko eta mantentzeko obrak.	60 %
Baserriak eta baserriei atxikiriko instalazioak birgaitzeko obrak, nekazaritzako, basoko edo abeltzaintzako ustategia denean eta famili unitatearen diru-sarrera bakarria ustategi horretakoa bada oro har. Horretarako, erakundeak emandako ziurtagiriaren bidez egiaztatuko da nekazaritzako eta abeltzaintzako ustategiaren benetako neurriak gutxienez N.L.U. bat duela.	60 %

003 - (Euskaraz) Otras Bonificaciones.	
Azpiegituretako inbertsio pribatuak bultzatzeko planekin loturiko eraikuntza, instalazio edo obrentzat. Hondakin urak saneamendu sare orokorrera eramateko asmoz hobi septikoak kentzera zuzendutako lanei lehentasuna emango zaie.	50 %
Babes ofizialeko etxebizitzetako eraikuntza, instalazio edo obretarako edota etxebizitza horiek etxebizitza sozial sailkapen badute	50 %
Eraikinetako edo aurretik dauden eraikuntzetako barrerak kentzea dakarren edozein eraikuntza, instalazio edo obraren kasuan, baita aurretik igogailurik ez duten eraikinetan igogailua jartzea dakarren edozein eraikuntza, instalazio edo obraren kasuan ere.	90 %
Ostalaritzako Ordenantzan ezarritako baldintzak betetzeko egindako eraikuntza, instalazio edo obretan %50eko hobaria.	50 %
Autokontsumorako eguzki-energiaren aprobetxamendu termiko edo elektrikoak gauzatzeko sistemak sartzten dituzten eraikuntza, instalazio edo obrak.	95 %

001 - Tasak- Obra handiak eta/edo aurrekontua dutenak	
18.000,01 eta 25.000,00 bitartean	431,17 Euro
25.000,01 eta 50.000,00 bitartean	538,96 Euro
50.000,01 eta 75.000,00 bitartean	700,65 Euro
75.000,01 eta 105.000,00 bitartean	808,45 Euro

PROZEDURAREN EPEA

Aurreikusitako epea: Hilabete 1

Prozedura arrunta. Legezko gehienezko epea: 3 hilabete

Isiltasun-administratiboaren izaera: Aldekoa

ARAUDI APLIKAGARRIA

- [2/2006 Legea, ekainaren 30ekoa, lurzoruari eta hirigintzari buruzkoa](#) 207. Art. eta hurrengoak
- [Plangintzako Udal Arau Subsidiarioak](#) 4.2.1 eta 4.2.2
- [Eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zerga arautzen duen ordenantza fiskala](#)

ESKAERA JASO ONDOREN JARRAITU BEHARREKO PROZEDURA

Dokumentazioaren administrazio azterketa, HAZak egingo du.

- Espedienteen irekiera, HAZak egingo du.
- HAZak emandako zuzenketa eskaria.

Dagokion sailera bidali: Hirigintza

- Espedientea teknikaren eta administrazioaren ikuspegitik aztertu.
- Instanzia teknikoari zuzentzeko eskatu
- Beste erakunde edo/eta instanzia batzuei baimena eman
- Txosten teknikoak eta juridikoak

Kitapena: Diruzaintza

Ebazpena

Jakinarazpena

NORK ONARTU BEHAR DU?

Tokiko Gobernu Batzarra

IZAPIDETZEKO ARDURA DUEN UDAL SAILA

Arlo Teknikoa - Hirigintza disziplina

OHARRAK